

## IDEKOREN DEKALOGO ETIKOA

IDEKOren Kode Etikoak gure jarduna gidatu behar duten jokabide printzipio eta jarraibideak zehazten ditu, enpresa etikan oinarritutako kultura sendotzea bermatuz.

IDEKOk profesional guztiek nahitaez bete behar dituzte oinarrizko printzipio horiek, eta honako dekalogo honetan laburbiltzen dira:

- 1** IDEKO **giza eskubideekin** eta **askatasun publikoekin** konprometituta dago.
- 2** IDEKOk **jokabide profesional** zuzena, zintzoa, prestua, arduratsua eta eraginkorra sustatzen du, eta baztertu egiten ditu bere irudi eta ospe korporatiboari kalte egin diezaioketen jokabideak.
- 3** IDEKOk bere egiten du **aukera berdintasunaren** printzipioa, eta bere profesionalen garapena sustatzen du **lan ingurune seguru** batean, **lankidetzaren**, **parte hartzearen** eta **talde lanaren** balioak sustatuz.
- 4** IDEKOk konpromisoa hartzen du **indarrean dagoen legedia** betetzeko, delitu jokabideak prebenitzeko eta orotariko iruzurren aurka borrokatzeko.
- 5** IDEKOk bere **finantza informazioaren** barne kontrola ziurtatzen du, bere ekonomiaren, finantzen eta ondarearen errealitatea zintzoki islatuz.
- 6** IDEKOk gardentasun eta leialtasun osoa du agintari fiskalekin, eta **funts publikoak** behar bezala erabiltzeko konpromisoa hartzen du.
- 7** IDEKOk **datu pertsonalen babesaren** arloan indarrean dagoen legedia betetzen du, eta datu horien konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa hartzen du.
- 8** IDEKOk bere jabetzako informazio oro, eta ematen zaiona ere bai, isilpeko **informazio konfidentzialtzat** hartzen du, eta sekretu profesionalaren pean jartzen du.
- 9** IDEKOk **jabetza intelektual eta industrialeko** eskubideak errespetatzen eta defendatzen ditu, baita hirugarrenei dagozkienak ere.
- 10** IDEKOk **legezkotasuna betetzean** eta **elkarrekiko errespetuan** eta **konfiantzan** oinarritutako harremana du bazkideekin, enpresa bezeroekin, hornitzaileekin kontratistekin eta lehiakideekin, bai eta administrazio publikoekin ere.
- 11** IDEKOk bere zerbitzuen **etengabeko hobekuntza** sustatzen du, bere jardueran sortutako datuek, informazioak eta jakintzak erabateko babesa izango dutela bermatuz.
- 12** IDEKO **ingurumenarekin** konprometituta dago, eta bere jarduerarako ezinbestekoak diren baliabide energetiko eta naturalak erabiltzen ditu soilik.

